

**XXI. MENDE HASIERAKO
HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK**

**ITUN BERRITU BATERANTZ
Eranskina**

*EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA*



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: I.a, 2009ko apirila

Ale-kopurua: 1.000 ale

© testuena: Egile bakoitza

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net/euskara21

Azala: Ainhoa Arroyo & Nerea Cobreros

Diseinua eta maketazioa: Junkal Motxaile

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

ISBN: _____

Lege gordailua: _____

AURKIBIDEA

HITZAURREA

Erramun Osa Ibarloza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako
Koordinaziorako zuzendaria, Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria 5

INAZIO ARREGI GORDOA 9

J. IÑAKI ETXEZARRETA ALBERDI 11

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU 15

MERTXE MUGIKA BALANZATEGI 35

TOMAS URIBEETXEARRIA MAIZTEGI 37

HITZAURREA

Erramun Osa Ibarloza

***Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako
Koordinaziorako zuzendaria
Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria***

EUSKARAREN Aholku Batzordea berriro eta, bere barruan, *XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak* izeneko Batzorde-atal Berezia eratu zelarik, batzorde horren 2008. urteko jarduera-planean ez zegoen garbi gogoetaren ondoren azken txosten bat idatziko zen edo ez. Alabaina, apirilean, *XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak* izeneko Batzorde-atal Bereziaren Batzorde-atal Iraunkorrek *Oinarritzko Txostena* idatzi eta aurkeztu ondoren, nabarmendu zuen abiarazitako prozesuan desadostasunak bai, baina, oinarritzko habeetan, adostasunak ere bazeudela. Horiek horrela, eztabaida prozesua burutu ondoren, beste dokumentu bat egiteko konpromisoa hartu zuen Batzorde-atal Iraunkorrek, 2008ko udazkenean.

Azken dokumentu hori idazteko konpromisoa hartu zen Batzorde-atal Berezian, dokumentu horren izaerari buruzko metodologiarik jarraibideak ere aurkeztu eta onartu egin ziren. Finkatutakoaren arabera, dokumentu berri hori ez zen aurreikusi ez Batzorde-atal Berezian ezta Euskararen Aholku Batzordearen Osokoan bozketara eramatea. Alta, adostu zen, *XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak* izeneko Batzorde-atal Bereziko 38 kideek eta Euskararen Aholku Batzordearen Osokoaren 42 kideek aukera izango zutela haien oharrak, ñabardurak edota iruzkinak egiteko. Ordura arte hainbat txosten idatzita eta argitaratuta zeudela kontuan hartuz, eta kontuan hartuz batzordekide guztiek izan zutela aukera nork bere ekarpena behar eta nahi beste sakontasunez idazteko, finkatu

zen, idatzitako guztiak argitaratu direlarik, oraingoan batzordekideek idatzi beharreko testuek gehienezko luzera izatea, hain zuten ere, espazioak barne, 5.000 – 8.000 karaktere (bizpahiru orrialde, gehienez).

Batzorde-atal Iraunkorrek *Itun berritu baterantz* izenburua daraman eztabaidaren ondorengo integrazio/sintesi txostena aurkeztu zuen, 2009ko urtarrilaren 29an, Donostian egin zen bilkuran. Bertan bildutako batzordekideek abegikor hartu zuten dokumentuaren edukia, eta batzordekideen gehiengo zabal batek adostasuna/atxikimendua erakutsi zuen. Nolanahi ere, alde zuzenetik finkatutako prozedurari jarraiki, nahiz eta batzordekide gehienak, bilkuran bertan bat etorri ziren dokumentuarekin, eta, beraz, nahiz eta batzordekide askok dokumentuaren aldeko jarrera adierazi zuten eta adostasun hori agerrarazteko eta gizarteratzeko eskatu zuten, hala nahi zuten batzordekideei aukera eman zitzaien, bi asteko epean, haien oharrak, ñabardurak edo iruzkinak labur idazteko.

Horren ondoren, 2009ko otsailaren 6an, Euskararen Aholku Batzordearen Osokoa bildu zen Vitoria-Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren egoitzan. Batzorde horrek, *Itun berritu baterantz* txostenaren edukia aztertu ondoren, dokumentua Euskararen Aholku Batzordearen Osokoaren dokumentua izatea erabaki zuen aho batez. Hala ere, Osokoaren kideei ere aukera bera eskaini zitzaien oharrak, ñabardurak edota iruzkinak egiteko. Hainbat batzordekidek adierazi zuenez, era horretako dokumentu baten baliola besteak beste ikuspuntu ugariaren integrazio dokumentua izatean datza, eta halakotzat jo zuen Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak *Itun berritu baterantz* txostena. Integrazio dokumentuak adostasunez eta orokorrean onartzen direla azpimarratu zuen Batzordeak, ñabarduretatik harantzago, alegia. Horregatik, Euskararen Aholku Batzordeak erabaki zuen, batzordekideren batzuk iruzkinik egingo balute, horiek *Itun berritu baterantz* dokumentuari berari erantsi ordez aparteko argitarapen batean, eranskin eran, argitaratzea.

Hainbat batzordekidek adierazi zuten haien oharrak egiteko aukerari uko egingo ziotela, *Itun berri*u baterantz dokumentuarekin oro har bat zetozenez. Horiek horrela, bost ekarpen jaso dira guztira. Ekarpen batek ez du, luzerari dagokionez, aldez aurretik adostu eta finkaturiko baldintza bete; gainerako ekarpenek, ostera, hartara errenditu dira.

Euskararen Aholku Batzordearen idazkaritza hau ahalegindu bada ere batzordekideen ekarpenak, luzerari dagokionez, adostutakora errendi daitezten, eta batzordekide ia guztiek adostutakoa bete dutenez, jasotako iruzkin guzti-guztiak –finkaturiko luzera erruz gainditu duena barne– bere horretan argitaratzea erabaki dugu. Hori da, beraz, eranskin honetan aurkezten dena.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 2a

INAZIO ARREGI GORDOA

ORO HAR, eta txostena burutzeko erabili den metodologia kontuan izanik, nire adostasuna azaldu nahi dut idatzitakoarekin.

Uste dut ez dela diferentziak bistartzeko unea. Aitzitik, arduragabekeria handia izango litzateke, ordenagailuaren aurrean eseri eta hilabetetako lana zalantzan jartzea.

Otsailaren 6ko bileran oso argazki kurioa ikusi nuen. Bazirudien norberak bere ñabardurak azaldu nahi zituela azken emaitza zalantzatan jarri gabe. Irakurri nuenean, hainbat esaldi (gutxi batzuk) oso deigarriak gertatu zitzaizkidan gogor samarrak ere bai batzuetan.

Irudipen horiek guztiak islatuta ikusi nituen osoko bilkuran. Ondorioz, konturatu nintzen nire burutazio guztiak, aurrez, batzorde-atal bereziko kideen buruetatik pasatuak zirela, eta pentsatu nuen, horiek guztiak eztabaidatu eta txostena onartu bazuten, neuk ere batzorde horretan egonda bide bera egingo nukeela. Beraz, ez dauka zentzurik ñabardurak eta desadostasunak berriro azpimarratzen ibiltzerik, batzorde barruan izandako eztabaida guztiak gainditu badira.

Baina aurreko guztiak esanda ere, uste dut txosten honen zutabeak adostasunean oinarritzen direla. Lortzeko hain nekeza den adostasunean. Behin horra iritsita arduragabekeria handia izango litzateke eraikuntza intelektual hau lotu duen oreka higatzea. Horregatik, nire bultzada eta babesa txostenari eta txosten hau lantzen aritu diren guztiei.

Egindakoa zaila izan da, eta kontsentsu zahar bat ordezkatu duen berri bat lortu dugu. Ez da errazagoa izango geratzen den bidea. Esperientziak erakusten digu askotan kale egin izan dugula akordioak sozializatzeko orduan. Aurreko lana egiten behar izan den denbora baino gehiago beharko da gizarteratze eta komunikazio lanetan. Ordu eta pazientzia asko. Ea asmatzen dugun.

Zorionak lan hau egin dutenei.

J. IÑAKI ETXEZARRETA ALBERDI

Euskararen Aholku Batzordearen “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” izeneko batzorde-atal berezian Euskara 21 eztabaidaren helmugara iritsiak gara. Aurtengo urtarrilaren 29an, Donostiako Kurtsalean, batzorde-atal berezi horretan “Itun berri baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena” liburukia eskuratu eta aurkeztu zitzaigun egunean egin nituen hitz inprobisatuak, eta hurrengo astean, otsailaren 6an, Gasteizen, Lehendakaritzaren egoitzan, Euskararen Aholku Batzordearen osoko bilkuran berretsi eta osatu nituenak idazki labur batean jasotzeko gogoak eraginda, han ahoz esandakoak segidako lerroen bitartez paper gainean uzten ditut, Euskara 21 eztabaidaren gidaritzaz arduratu direnek egokien suertatzen zaien eran administra ditzaten.

1. IRUZKINA. Txaloak

Lehenik, eta inolako zalantzarik gabe, “Itun berri baterantz” txosten egileak zoriondu nahi ditut, XXI. mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak seinalatzeko xedea zuen eginkizunean, lau onura dituen produktua lortu dutelako:

- 1.1. Zuzeneko hizkuntza-erregistroa baliatu da.** Hasierako proposamenetik oraingokora ideiak ordenatuagoak daude, hariari era estuagoz heldu zaiola nabaria da.
- 1.2. Ekarpinak integratu dira.** Eztabaida zabalean, batzorde-atal kideok eta bestelakoek egin ditugun ekarpinak txostenean

biltzeko ahaleginean, hainbat eta hainbat proposamen jaso eta txostenean egoki islatu dira.

1.3. Oreatua da. Txostenaren edukia, oro har, hizkuntza-politikarako erdigune baten eskaintza da, gaur dagoenarekiko aurrera pausoa, batetik, iraganaren eskema klasikoetatik etorkizunaren koordinatua bilatzera doana, bigarrenik, eta gizarte-adostasun gune sendo eta zabala marrazten duen oreka-puntua.

1.4. Adierazkorra da. Txostenaren edukiaren osagai esanguratsuenak, azaltzen ari naizen ikuspegitik, ondoko ataletan aurkitu ditut:

- Txostenaren II. Kapituluari, "*Garena: Nondik gatoz, non gaude eta nora goaz*" izenburukoan, 37. eta 38. orrialdeetan agertzen diren etorkizun-eszenatokiei buruzko esaldi nagusiak. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren hurrengo lan sakonago batean eszenatoki horietan aritzeko eta saiatzeko gomendio apala egin nahi nuke. Hain zuzen, ondokoetan
- (...) "gure gizartean bizikide diren hizkuntzen(ingelesa barne) arteko mugak malguago eta bigunagoak izango dira";
- (...) "Gaur baino askoz naturaltasun handiagoz biziko ditugu hizkuntzen arteko banaketa funtzional eta geografikoak;
- (...) "50 urtetik beherako herritar guztiak euskal hiztunak edo, gutxienez, euskaldun pasiboak izango dira,
- (...) "euskararen erabilera esparru geografiko eta funtzional berrietara hedatuko da. Euskararen erabilera, beraz, era guttiz nabarmenean haziko da, salbu eta, seguruenara, gaur egun erdaldunen diren guneetan;
- (...) "euskarak arnasmune gehiago, trinkoago eta sendoagoak izango ditu, belaunez belauneko transmisioaren

eta hizkuntzaren beraren adierazkortasunaren mesedetan”;

- (...) “euskarazko kultura ekoizpen eta kontsumoa nabarmen haziko dira, oraindik ere erdara nagusi izaten jarraituko duen kultura merkatuaren barnean”
- Txostenaren III. Kapituluaren, “*Lan ildo nagusiak*” izenburukoan, 50. eta 51. orrialdeetan, “*Lehentasunezko ildoak XXI. mende hasierako hizkuntza politikarentzat*” atalean agertzen diren lan ildo zehatzak, jo puntuan asmatuko duten edo hutsak izango diren aurreikusi gabe. Eta aurreko aipamenean adierazi dudanez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren hurrengo lan sakonago batean lehentasunezko 14 lan ildo horietan ar aritzeko eta saiatzeko gomendio apala egin nahi nuke.
- Txostenaren III. Kapituluaren orokorregia gertatu zait, duen barne-gogoaren izaerak txosten-egileak idazketa berezia, “batikanista”, baliatzera derrigortu dituelako, seguru asko. Lursail labainkorra da, bistan denez, geure gizartean Itun zabal bat, edozein esparrutan, proposatzea eta erdiestea. Dena den, txosten honetan baliatu den metodologia, esku hartze eraginkorra eta batzorde iraunkorrak (iruditzen zait) baliatu dituen zeharkako ibilera eta adosteko gogo praktikoa lekuko eta aurrekari bikainak ditu hurrengo prozesu batean hizkuntza-politika berri baten proposamena diseinatzeke eta adosten saiatzeko ardura izango duenak

2. IRUZKINA. Hobekuntza-proposamenak

Adostasuna bilatu eta aurkitu izanak, ordea, testuaren gabezia formal batzuk (ideiak azaltzeko modu gordina, ezezko esaldien erabilera demasakoa...) alde batera utzita, eta edukiaren balio osoa

zalantzan jartzen dituztenak, jakina, badira bi aspektu, nire ustez inportanteak, hurrengo saio batean kontuan hartu beharrekoak:

2.1. Edukiari dagokionez, hezkuntza munduaren etorkizuneko rola

Hezkuntza alorreko kidea naizen aldetik, sail horrek orain arteko bidean izan duen eraginari dagokion etorkizun-eszenatokiari buruzko aipamen esplizitu baten eza nabariegia gertatu zait, eta gauza bera diot ildo nagusirik ez seinalatzeaz, nahiz eta ez den oso azkarra izan behar txostenean seinalatzeko direnetatik hezkuntza-eszenatokitara pasatzeko eta lan ildoetan heldulekuak baliatzeko. Baina, tira, komeni da, gomendagarria da, hezkuntza eremuari buruzko item esplizituak ekartzea.

2.2. Jardunari dagokionez, gizarte-erakundeen etorkizuneko rola

Itun berrituak lidergoa behar du, eta hau botere publikoan dago. Baina, edozein hizkuntza-politikak arrakasta izan dezan goraiatzeko ditugun hiru eragileetatik bat, gizartearen atxikimenduari dagokiona, gutxi joratu da txostenean, eta Euskara Biziberritze Plan Nagusiaren hurrengo aldiak izan beharko lukeen mamia diseinatzean eta hau kudeatzean gizarte-erakundeen eta herritarren esku hartzea aurreikusi eta bideratzen ahalegin behar du.

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Eztabaida-prozesuan parte hartzeko gonbita jaso genuenetik arreta eta dedikazio handiz lan egin dugu gogoeta saioetan eta ekarpenak eginez hizkuntza-politika berriaren oinarriak finkatzea ezinbesteko lana iruditzen zaigulako euskara normalizatuko bada. Tamalez, azken aldera ezin izan dut bilera guztietan esku hartu, beste eginbehar batzuek eragotzi didatelako, horregatik bukaerako txostenari zenbait iruzkin egiteari beharrezko deritzot.

Gauza jakina da, hizkuntza-politika berria behar dugula. Orain artekoaren azterketa kritikoa egiten badugu, gure uste apalean behintzat, eraginkortasun murrizta duen politika ezagutu dugulako, sektoreka desorekatua, epe eta helburu zehatzik gabea, desegoki koordinatua, elkarlan eskasekoa, arautegi zehatzago baten beharra duena eta baliabide askoz ere gehiago eta hobeki inbertituak behar dituen. Politika horretan oinarrituz lortu ahal izan ditugun datuek eta egin diren proiektio apurrek (*Reclus* ereduarenak, esate baterako) garbi adierazten dute ez dela ezagutzaren unibertsalizaziora iritsiko euskararen etorkizuna bermatzeko moduko epean eta gainera, kezka jaso ditugu azken inkesta soziolinguistikoaren datuak EAEko datuetan ezagutza-tasaren hazkundeari dagokionez moteltzea erakusten baitute. Eusko Jaurlaritzak berak argitaratutara emandako datuen arabera 1991.ean herritarren % 24,1ek zekien euskaraz, 1996.ean egindako inkestan ordea, % 27,7 ziren, beraz, **3,6** puntu egin genuen aurrera, 2001.ean % 29,4ra egin genuen gora **1,7** puntu irabaziz eta azkenik, 2006.eko inkestan % 30,1 dira

euskara ezagutzen duten herritarrak, ondorioz, **0,7** puntu irabazi dugu (Akats-tartearen arabera galtzea ere izan litekeena). Gauzak horrela, azken urteotan aplikatu den hizkuntza-politikaren emaitza ez da, gure ustez, euskararen normalizaziora sendo eramango gaituen politika baten emaitza. Egiturazko aldaketak egin behar dira eta zoritxarrez ez dira horiek proposamenen jasotzen, nagusiki orain arte hizkuntza-politikaren ardatzak izan direnak berrartzen baititu etorkizunera proiektatuz.

Lerrootan saiatuko gara, beraz, gure ustez, zer egiturazko aldaketa behar den adierazten; garrantzi handikoak diren oinarri koherente eta eragingarriak zein diren azaltzen eta horiek erkatzen txostenak egiten dituen proposamenekin, batzuetan ñabardurak ezarriz, beste batzuetan hutsuneak betetzen eta bestetan, proposatutakoaren aurrean alternatibak zehaztuz. Has gaitezen bada:

Eztabaidari hasiera eman zion txostenak pasarte interesgarria du, bigarren honek normalizazio-prozesuaren faktore garrantzitsuenak aipatzeko xedearekin berriro hartzen duena, eta honako hau da:

“...biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak: **lege-marko egokia**, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena; **hizkuntza politika eraginkorra** eta baliabideak; **herritarren atxikimendua** eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa.”

Gutziz ados gaude faktoreen zerrendatze horrekin. Dударik gabe, arrakasta bermatzeko faktoreak dira, zer dio bada txostenak horietako bakoitzari buruz?

LEGE-MARKO EGOKIA

Proposatzen dena baino garrantzitsuagoa da proposatzen ez dena. Izan ere, gaur egun EAEn ofizialak diren bi hizkuntzek estatus des-

berdina dute. Gogoratu behar dugu Espainiako Konstituzioak gaztelania ezagutu beharra ezartzen duela. Horrek ondorio praktikoak ditu alor guztietan, publikoan eta pribatuan. Esan genezake harremanak ere baldintzatzen dituela. Pentsamolde kolektiboan oso ezarrita dago ezarpen hori, pisua du eta esan bezala, hiztunen arteko harremanak baldintzatzen ditu. Gogoratu nahi dugu, Kataluniako Estatutu berrian katalana ezagutu beharra ezarri zela. Horrek bi hizkuntza ofizialak juridikoki berdintzen ditu eta beste politika batzuk ahalbidetzen ditu. Maiz argudiatu da gurean, errealitate desberdina bizi dugula, gutxiago garela eta abar baina, estatus horren funtzio juridikoa funtsezkoa dugu normalizazioaren bidean aurrerapauso sendoak emango badira bere ondorio praktikoengatik. Funtsezkoa da bi hizkuntza ofizialen estatus-berdinketa juridikoa, bi moduz egin litekeena bestalde, guk gure ordenamendu juridikoan sartuz katalanen antzera edo gaztelaniaren ezagutu beharra Espainiako Konstituziotik kenduz.

Beste maila batean, txostenak hainbat aldiz aipatzen ditu arautu-beharrak:

“Arautu beharko da, beraz eta ezinbestez, esparru publikoko hizkuntza ofizialen erabilera...”

“...ezinbestekoa da esku hartze politikoa, eta nahitaezkoak dira, beraz, lege, dekretu eta gainerako arauak.”

Pozgarria da ikustea, arautu beharra ezinbestekotzat jotzen dela. Zinez, arautu beharra dago euskara edo beste edozein hizkuntza gutxiagotu normalizatzeko. Orain arteko hizkuntza-politikaren hutsunerik nabarmenetako bat izan da hau, batzuetan ez delako arautu gizarte sektore asko batera eraginik gabe utziz. Gogoratu nahi dugu hizkuntza-politika egiten dena eta egiten ez dena dela eta ez arautzeak gaztelaniaren hegemoniaren errotzea ekarri duela. Beste batzuetan, askatu ezinezko mataza juridikoak sortu dira dekretuak dekretuen gainean sortuz, eskubideen arteko talkak

konponbiderik gabe utziz eta arauen eraginkortasuna galaraziz eta azkenik, beste batzuetan arau partzialak sortuz, irtenbide oso eta orokorrak bideratzeko aukera alferrik galduz. Beraz, arautu-beharra aipatzea berri ona da. Dena den, hizkuntza-politika berriak behar duena, gaur egun, ez da arautu beharra aldarrikatzea baizik eta arauak sortzeko irizpideak definitzea. Gure ustez, honela jokatu beharko litzateke:

1. Arau zehatzak behar ditugu. Historikoki arauen anbiguetateak hizkuntza gutxiagotuaren kontra jokatu du, are gehiago gure kasuan bezala, estatus desorekatua denean.
2. Errealitateari egokitutako arauak behar ditugu. Hau da normalizazioaren garapenarekin batera automatikoki egokitzen direnak. Ez da egokia, arauak etengabe aldatzen ibiltzea datuen baitan, aldaketa automatikorako mekanismoak txertatu behar dira bertan.
3. Arau osoak behar dira. Haien eragin-eremuan alor guztiei begirako erantzunak eskaini behar dituzte. Sektore edota jardun jakin bati begirako araua bada sektore edo jardun horiei beren osoan eragingo die.
4. Arauek kasu guztietan epe eta helburu zehatzak ezarri behar dituzte.
5. Euskararen normalizazioak zehar lerro-izaera duenez, Gobernuaren inizatiba juridiko-politikoaren ondoriozko arau denek izan behar dute hizkuntza alorra. Etxebizitza-politika ere hizkuntza-politika da.
6. Arauek izan behar duten ipar edo helburu komuna hizkuntza-eskubideen bermea izango da.

Gure uste apalean, behintzat, XXI. mendeko hizkuntza-politika eskatzen duen oinarri eraginkorra ez da arautzearen aldeko aldarria baizik eta arkitektura juridikoa eraikitzeko irizpideen finkatzea.

HIZKUNTZA-POLITIKA ERAGINKORRA

Haxe da arrakasta lortzeko bigarren faktorea eta eztabaida osoaren mamia. Gogora dezagun hizkuntza-politikaren oinarriak finkatzeko helburuarekin egindako gogoeta izan dela. Txostenean barreiaturik ageri dira politika definitzen duten elementuak. Guk hobeki aztertu ahal izateko bi zutabetan jarri ditugu txostenak politikaz dioena eta guk proposatu genuena. Hona hemen:

Txostenak definitzen duen hizkuntza-politika	Gure ustez, hizkuntza-politika egoki batek izan beharko litzuzkeen ezaugarriak
Politika ez neutrala, euskararen aldekoa.	Bitarteko egokiz hornitua.
Progresiboa, adostua eta eragin-garria.	Epe eta helburu zehatzak dituen.
Boluntarismorik gabea.	Administrazio Nagusitik Toki administraziorainokoa.
Erabileraren aldekoa.	Erabilera sozial normalizatua helburu duena.
Euskararentzat gune eta funtzio zehatzak zaindu, sendotu, hedatu, lortuko dituen.	Gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa.
Hizkuntza-politika ez uniforme, tokian tokiko desberdintasunak dituen.	Euskal Herriko eremu osoan aplikatzeko modukoa.
Demokratikoa.	Sailartekoa
Zuhurra.	Ikuspegi osokoa.
Bi hizkuntzen arteko banaketa geografiko eta funtzionala onartuko duena.	Hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dituen.
Elkarlana ahalbidetuko duena.	Instituzioekin eta gizarte eragileekin egoki koordinatua.
	Norbanakoak eta espazioak euskalduntzera bideratutakoa.

Taulan ikusten denez, modu desberdinetan esanda, baina, iradoki liteke erredakzio desberdinek ideia edo kontzeptu berdinei eusten dietela. Ados gaude, beraz, erabilera normalizatu behar dela esaten dugunean; ados, euskararentzat espazio edo guneak irabazi behar direla; ados ere, esaten dugunean lekuan lekuko errealitate soziolinguistikoetara egokitu behar dugula. Hala ere, izan baditugu desberdintasunak. Kasu batzuetan ez dira ñabardurak besterik baina, beste kasu batzuetan, funtsezko desberdintasunak direla uste dugu. Hona hemen hainbat eztabaidagai:

PROGRESIBOTASUNA

Txostenak “*progresibotasunaren*” aldeko aldarria egiten du etengabe. Aldarri berbera ezagutu dugu azken mende laurdeneko hizkuntza-politikaren arduradunen ahoan eta ondorioz, ez dago esaterik oinarri berria dela, azken mende laurdeneko hizkuntza-politikan termino horren erabilera etengabea egin baita.

Prozesu guztiak dira progresiboak, bizitza honetan den-dena egiten da era progresiboan. Adibide gisa esango dugu mendi garai batera igo nahi badugu progresiboki egingo dugula aurrera, tarteko kanpamenduak ezarriko ditugu eta alde zurreratik zehaztutako plangintza baten arabera gora eta behera egingo dugu tontorrera iritsi arte. Beraz, adibideak dioen bezala, tarteko helmugak lortzen joango gara progresiboki. Progresioa, beraz, ez da ezer plangintzarik gabe, edo hobeto esanda, plangintzarik gabe progresioa inprobisazio bihurtzen da, uneoro erabaki behar dugu zer egingo dugun eta ebaluatu ere, inprobisazio hartutako erabaki horien arabera egingo dugu eta ez alde zurreratik zehaztutako plangintza baten arabera. Orain arte, progresibotasunaren erabilera okerra egin da. Kasu askotan, progresibotasunak inprobisazioa ezkutatu du, zerbait egite hutsa, planifikaziorik gabe egitea, hain zuzen ere, helburu bihurtu da eta horrek hizkuntza-politika sektoriala noraezean sartu du.

Hizkuntza-politika progresiboa izango dela esatea, egia esan, ezer gutxi esatea da. Txostenean, iraganean bezalaxe, progresibo-

tasunaren aldeko aldarria egiten da plangintzaren, epeen eta helburu zehatzen aldekoa egin beharrean. Hizkuntza-politika politika planifikatua da, bestela, ez da egokia eta ez da progresiboa izango. Ikus dezagun gaia hainbat aldiz jarritako adibide batekin. Euskara-aren presentziaren areagotzea zine-aretoetan, esate baterako. Orain arte, progresiboki lan egin da, hau da tarteka pelikula bat edo beste izan dugu eta gutxi direla kritikatu dugunean, gero eta gehiago direla esan zaigu, gutxi izanik ere. Errealitatea da ez dagoela inolako plangintzarik zine-aretoetan gutxienez ezagutzaren araberako eskaintza egon dadin (helburu bat beste edozein izan zitekeen bezalaxe). Hizkuntza-politika egoki batek, progresioa aurreikusi behar du eta epeak eta baliabideak ezarri behar ditu (ekonomikoak, juridikoak, administratiboak...). Hau da, politika ebaluatu ahal izateko eragin adierazleak ezarri behar ditu. Horretaz guztiaz, ez da ezer aipatzen txostenean eta hortxe dago gakoa. Izan ere, plangintzaren eraginpean dagoena bakarrik da progresiboa.

Progresioa ez da ezer harekin estuki erlazionaturiko hainbat kontzeptu izan ezik: epea, helburua, bitartekoak, ebaluazioa, eragin beharreko sektorearen zehaztapena. Hizkuntza-politika egokiaren ezaugarria ez da progresiboa izango dela esatea, hori berezkoa delako prozesu guztien kasuan, baizik eta epeduna, helburuduna, zehatza eta bitartekoduna izatea.

“Progresibotasunak ez du esan nahi, noski, ez geldotasuna, eta are gutxiago gehiegizko bizkortasuna”.

Aparteko eztabaida da erritmoari dagokiona. Begi-bistakoa da orain arteko erritmoa geldoa dela eta azkartu beharra dagoela, baina, era berean, jakin badakigu, hizkuntza bat berreskuratzeko prozesuak luzeak direla. Beraz, azpimarratu nahiko genuke eztabaida ez dagoela erritmoan baizik eta lan egituratuan. Askoz ere motelago lan egiten da inprobisazioak agintzen duenean, eperik gabe. Arduradun-aldaketa etengabeek kalte handia egiten diote prozesuari

plangintzak ez daudelako argi eta urterik urte arduradun politikoaren bizitasunaren arabera garatzen da hizkuntza-politika. Plangintzek egonkortasuna eskaintzen diote politikari eta plangintzek zehaztu behar dute erritmo egokia. Arazoa da, euskararen normalizaziorako bidean asko eta asko direla plangintzarik ez duten sektoreak.

Zoritzarrez esan behar dugu, azken mende laurdeneko praktika politikoak erakutsi digula progresibotasunaren kontzeptua politikoek kritikak saihesteko erabili duten tresna bat izan dela. Zerbait egitea, gutxi izanda ere, progresioaren estalkipean gorde daitekeen zerbait da, beraz, eztabaida da egin behar zena egin ote den eta ez horrenbeste, zerbait egin ote den. Hizkuntza-politika berri eraginkorra hoberen definitzen duen kontzeptua ez da politika progresiboa baizik eta, politika planifikatua, epe eta helburuduna, etengabe ebaluatua progresio egokia bermatzeko.

HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

Hizkuntza-eskubideek ez dute ardazten txostengileen proposamenena. Gogoratu nahi dugu, *Hizkuntza-Eskubideen Deklarazio Unibertsal*ak (Bartzelona, 1996) zehaztu egiten dituela giza eskubide ere badiren eskubideok eta jardun demokratiko batean eskubideak dira gizarte politika gidatu eta ardaztu behar duten kontzeptuak. Txostenean hainbat baieztapen interesgarri egiten da hizkuntza-eskubideen inguruan:

“Administrazio publikoak eredugarria izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari dagokionez.”

“...lehenetsunetan lehena izango da toki guztietako Administrazio guztiek langile elebidunak izatea jendaurreko lehen harreran zuzena gauzatzen den tokietan. Hori gabe, ez dago hizkuntza eskubideen babesaz hitz egiterik.”

Era berean badira kezka eragiten diguten beste baieztapen batzuk. Azken mende laurdenean ezagutu dugun praktika politikoan

ustezko eskubide talka horren emaitza, maiz, euskal hiztunok ditugun eskubideen kontrakoa izan da. Horrela, ezagunak dira oso sindikatu batzuk egindakoak euskararen eskakizuna murrizteko; ezagunak, euskalduntzen ez duten ereduak gaindituak izan ez daitezen egindakoak; ezagunak, alor publiko eta pribatuan interes talde desberdinek euskara bazter uzteko egindako presioak, haien interes pertsonal eta kolektiboak nagusitzeko euskararen kalterako. Ehunka kasu ditu bildurik Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, praktika horren berri ematen dutenak.

“...hizkuntza eskubideak ez dira, argi dago, herritarrak dituen eskubide bakarrak, eta, eskubide guztien arteko dialektikan normala denez, elkar baldintzatzen dute eta, hainbatetan, baita mugatzen ere.”

“...gurasoek seme alaben irakaskuntzarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ikasleek derrigorrezko irakaskuntzaren buruan EAEko bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa lortzeko betebeharra harmonizatuz.”

“...garenaren neurriak ematen digun eskalak eta hortik ondorioztatzen diren mugak baldintzatu egiten gaituzte hizkuntza eskubideak gauzatzera.”

Hizkuntza-eskubideen bermeak ardatza izan behar du XXI. mendeko hizkuntza-politikan, *corpus* juridikoan eta praktika politikoan. Eskubideok unibertsalak dira eta hiztun kopurua bezalako kontzeptuak ez dira horiek baldintzatzeko argudioak. Gaur egun, eskubidetza hartu diren batzuk, eskubide ez direla azpimarratu nahiko genuke. Izan ere, euskara ikasteko eskubidea badago baina ez da existitzen euskara ez ikasteko eskubidea; badugu eskubidea Administrazioan euskaraz artatuak izateko, ez da eskubidezkoa aukera hori urratzen duena kontratatzea, eskubidezkoa da produktuen etiketetako informazioa euskaraz jasotzea, ez da eskubidezkoa

euskarari lekurik ez eskaintzea. Beraz, eskubide talka hori ez da benetakoa, maiz eskubide mailara igo baita berez eskubidea ez den zerbait. Oso garbi ikusten da hori Hezkuntza-sistemaren kasuan euskara aldatu eta beste jakintza gai bat jartzen badugu.

Harridura sortu digu Espainiako Estatuaren Administrazioari eta Justizia Administrazioari egiten zaizkien kritikek. Honako hau dio txostenak:

“EAEn kokatutako Estatuko Administrazioaren eta Justizia Administrazioaren jokabideak: ez batean ez bestean hartu da, hogeita bost urteotan, neurri eragingarri nahikorik erabilera-eremu horietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta hutsaren hurrengoa da euskararen presentzia esparru horietan.”

Kritika %100ean konpartitzen dugu baina, era berean, uste dugu hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzen direla, adibidez Osakidetzan, euskalduntze-plana 20 urte berandu abiatu zuen osasun zerbitzuan edota Ertzaintzan, eta hori ere aipatu beharko litzateke.

POLITIKA KOORDINATUA

Ez da txostenean garrantzi hain handia duen kontzeptu horri buruz funtsezko proposamenik egiten. Orain arte ezagutu dugun hizkuntza-politikaren ezaugarrietariko bat izan da behar bezain ongi ez koordinatzea Administrazioen arteko lana. Eskuartean dugu Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Euskal Herriko 66 udalerritan egindako hizkuntza-politikaren azterketaren emaitza eta horri esker, jakin dezakegu oso politika heterogeneoak egiten direla, koordinaziogabeak, unean uneko arduradun politikoen baitakoak, batez ere asistentzialak eta, kasu askotan, eskaintza kulturala areagotzera bideratutakoak bazterrean utziz hizkuntza-eskubideak bermatzeko bidean

traktore lana egin dezaketen erabakiak. Beharrezkoa da lekuan lekuko ezaugarri soziolinguistikoen araberrako hizkuntza-politika koordinatua abiatzea bi kontzeptuak ez baitaude elkarren lehian.

BANAKETA GEOGRAFIKOA ETA FUNTZIONALA

Kezka bizia sortzen digun kontzeptua da hori. Gure ustez erritmo eta estrategia desberdinak erabiliz baina, geografikoki eta funtzionalki aurrera egin behar dugu euskara erabat normalizatzeko helburuarekin. Ez dugu garbi ikusten prozesu horri alde aurretik mugak jartzeak zertan laguntzen duen.

“...euskarak ez du sekula izango beste hizkuntza batzuek duten barne indarra hainbat alorretan (aisialdia, lana, posizio soziala...); gurean, bizi-indar afektiboa da balio nagusia, eta balio horretaz jabetzeko gakoa, borondatea eta barne motibazioa dira.”

Ez dugu azterketa hori konpartitzen, ez da onargarria esatea euskarak ez duela sekula izango barne-indarrik hainbat alorretan. Zilegi litzateke aitortzea datozen hamar urteotan ez dugula alor horietan parekatzea lortuko baina, “*sekula*” ez dugula lortuko zabaltzeak eragina du hizkuntzaren beraren pertzepzio sozialean. Horrek ez du normalizatu nahi dugun hizkuntzaren alde jokatzeko, inork ez duelako ikasi nahiko “*sekula*” indarrik izango ez duen hizkuntza bat.

Bestaldetik, hausnarketa sakona eskatzen du esaldian baieztatzen denak: *bizi-indar afektiboa da balio nagusia*. Hizkuntza-politika berri bat behar izatearen arrazoi nagusietariko bat horixe da, hain zuzen ere. Azken mende laurdenean euskarara hurbildu diren pertsonak motibazio hori izan dute, bizi-indar afektiboa sentitu dute, asko erakarri ditugu, beste askok ikasi egin dute edota haien seme-alabak euskaldundu dira eta inplikatuenean, euskararen aldeko mugimenduari bizitasun handia eskaini diote, haien denbora

eta dirua inbertituz. Irekitzera doan zikloaren ezaugarria ez da hori. Orain arte euskarara hurbildu ez diren pertsonak ez ditugu erakarriko motibazio afektiboekin. Motibazio pragmatikoen garaia ireki da eta hizkuntza-politika errealitate horretara egokitu behar dugu edo porrot egingo dugu. Ingelesari dagokionez, lanpostua aurkitzea edo hobetzea, informazioa eskuratzea, bidaiatzea, kultura desberdinetako pertsonekin komunikatu ahal izatea... horiexek dira bere aktiboak eta lehia horretan euskarak alor afektiboan borrokatu behar duela aldarrikatzea ez da egokia.

Hurrengo zikloan hizkuntza-politika eraginkorrak sakondu egin beharko du herritarren motibazio pragmatikoetan, alor afektiboa ahaztu gabe, baina eragindako motibazioetan pragmatikoak indartuz.

HIZKUNTZA-POLITIKA AURRERA BEGIRA

Hizkuntza-politika eraginkorrak lehentasunezko lan ildoak jorratu behar ditu. Gure ustez, honako hauek dira:

HEZKUNTZA

Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar dituela uste dugu. Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik pauso eraginkorrak eman behar ditugulako ezagutzaren unibertsalizaziorantz eta zeregin horretan eskolak funtsezko papera du, Helduen Euskalduntze Alfabetatzearekin batera. Gaur egun, zoritxarrez sistemak ez du helburua lortzen eta presazkoa da erreforma sakon bat egitea helburu hori lortzeko. Txostena lausoa da alor horretan, ez da erreformaz hitz egiten, aipatu egiten da bermatu behar dela ezagutza eta erabilera belaunaldi berrietan baina, era berean, jada egiten dela esaten da. Orain arte, arau bidez zehaztu da ikas-prozesua bukatzean bi hizkuntza ofizialak ezagutu behar direla baina, ereduek ez dute hori lortzen:

“Herritarrak hizkuntza ofizialen artean nahi duena aukeratzeko duen askatasuna da, bide horretan, ardatz nagusia. Baina askatasun horri muga bat ezarri zitzaion derrigorrezko hezkuntzan: ikasle guztiek ikasi behar dute, ezinbestez, aukeratu ez duten beste hizkuntza ofiziala ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean hizkuntza bietan izan dezaten “jakintza praktikoa nahikoa”. Hau, beraz, ikasle guztien betebeharra da.”

Alor horretan orain arte ezagutu duguna gainditzeko elementu berririk ez da ageri txostenean eta aukeratzeko askatasunari egiten zaio erreferentzia. Aukeratzeko askatasunaren izenean orain arte, euskararen normalizazioaren kontrako indarrak ezkutatu dira euskara ez ikasteko. Euskararen normalizazioaren kontrako jarrera batetik abiatzen dira argudio horiek. Eraitza legez kontrakoa izateaz aparte, gaztelaniaz ikasiz ezin delako bermatu bi hizkuntza ofizialak eskuratzeari, normalizazio-prozesua erabat baldintzatzen dute, erdal elebakarren eraginaren bidez. Murgiltze- eta mantentze-ereduak bakarrik berma dezake belaunaldi berrien erabateko euskalduntzea.

ADMINISTRAZIOAREN EUSKALDUNTZEA

Txostenean aipatzen diren printzipioekin bat gatoz:

“Administrazio publikoak eredugarria izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari dagokionez.”

“Euskararen ezagutza egiaztatu duten langileek euskara lan hizkuntzatzat erabili behar dute.”

“...lehentasunetan lehena izango da toki guztietako Administrazio guztiek langile elebidunak izatea jendaurreko lehen harreman zuzena gauzatzen den tokietan.”

Hala ere, aurrera begirako proiektioan ari garen neurrian, aipamenak labur gelditzen direla uste dugu, izan ere, orain arte ere

mezu horiek beraiek zabaldu dira, baina errealitatea, kasu askotan eta salbuespenak salbu, ez da egokia hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzen baitira. Orain arte Administrazioa euskalduntzeko erabili diren tresnak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, plangintzaldia, zentsuaren arabera tasak... ez dira balioesten eta ez da ezer berritzailea proposatzen aurrera begira. Administrazioa euskalduntzeko epeak zehaztu egin behar dira lanpostu guztiei derrigortasun data ezarriz, edo bestela esanda, Administrazioak lana eta zerbitzua euskaraz emateko epe-muga zehatza ezarri behar da, eta horren arabera plangintzak ezarri. Berrito gaude dagoeneko aipatu dugun progresibitatearen auzian murgilduta. Ez dugu epea zein den zehaztu beraz, ezin zaigu leporatu gauzak azkar egin nahi ditugula. Garrantzitsua iruditzen zaiguna da epea bera zehaztea eta horren arabera lan egiten hastea.

Lan-ildoak definitzeko unean, txostenak dio eremu publikoan hizkuntza-eskubideak errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatu behar direla. Printzipioarekin, ados gaude, baina nekez beteko da epe zehatzak eta horiek betetzeko plangintza eraginkorrak sortu eta inplementatu gabe.

ALOR SOZIOEKONOMIKOAREN EUSKALDUNTZEA

Seguru asko haxe izango da txostenak dituen hutsuneen artean nabarmenena. Aurrera begirako lan-ildoak definitzen diren momentuan aipatu ere ez da egiten Gure bizitzaren zati handi bat lanean pasatzen dugu, eta beste zati bat lanean ari diren beste batzuekin harremanetan, zerbitzuak eta produktuak eskuratuz. Ez dago alor sozioekonomikoan pauso eraginkorrak eman gabe euskara normalizatzerik eta XXI. mendeko hizkuntza-politikan saihestu ezinezko gaia izango da bertan jokatuko baitugu izan ala ez izan.

Publizitatea, etiketak, zerbitzu- eta produktu-eskaintzak, langileen arteko harremanak, enpresak eta instituzioen artekoak, sindikatuekikoak... horiek denak funtsezkoak dira Txostenean zehar,

funtzio komunikatiboen banaketaz hitz egiten denean, hizkuntzen arteko banaketa funtzionala onartu beharra aipatzen denean, beldur gara ez ote diren alor sozioekonomikoaz ari. Etorbizuneko erronka da hori, lan-ildo garrantzitsua eta lehentasunezkoa, eta ondorioz, sakontasun handiagoz aztertu beharko litzatekeena.

ZEHARKAKOTASUNA

Lehenago ere oinarrizko ezaugarritzat jo da euskararen normalizazioari erreferentzia egiterakoan. Maiz entzun dugu alor guztiei eragin beharko liekeen gaia dela. Hala ere, orain arte kritikoak izan gara nabarmena izan delako Kultura Saitetik ez dela posible izan gainerako Saitetan behar bezain ongi eragitea uneoro euskararen normalizazioak dituen beharrak asetzeko. Plangintzak aztertu eta oniritziak ematea ez da nahikoa, bete beharreko irizpide zurrunagoak behar dira, ebaluazio zorrotza behar da eta euskararen beharrek eragindako neurriak ezartzen direla ziurtatu. Horretarako garbi dugu errazagoa izan litekeela Lehendakariordetza batetik burutzea lan hori.

“Zentraltasun horrek, bestalde, **zeharkakotasuna** ere eskatzen du, nahitaez, hizkuntza politikarentzat, ez baita inola ere proposatzen, zentraltasunaren izenean, gunean guneko hizkuntza politika isolatu bat, baizik eta gune orotan isla berezia eta profil zehatza izango duen hizkuntza politika bakar, orokor eta iraunkor bat.”

Txostenak ohiko diskurtsoa darabil, komenigarria litzateke nola bermatuko den edo, gutxienez, nola berma litekeen azaltzea.

EUSKALGINTZA

Bereziki gogorrek iruditu zaizkigu Euskalgintzari buruz esaten direnak. Gaur egun positibotzat jotzen dugun emaitza asko Euskalgin-

tzan aritu den jende askoren lan isil eta anonimoari zor zaizkio. Iritzi guztiz subjektiboak dira eta ez dute ematen azterketa sakon baten emaitza direnik:

“badira euskara lehia politikoaren aitzakia edota osagai gisa hartu dutenak ere.”

“...sekulako kaltea egiten diote euskararen biziberritzeari eta langintza horretan zintzo ari direnei euskara borroka politikarako ikurtzat baliatzen dutenek.”

“...joera nabarmena dago herri-aginteei euskararekiko etsaigoa edota, gutxienez, zabarkeria edo lasaieria egozteko. Eta, jakina, hortik euskara alderdikieriaz erabiltzera ez dago inolako tarterik.”

Baieztapen gogorrek eta funtsik gabeak dira. Zilegi da edonorentzat pentsatzea eta esatea Administrazioa lasai ari dela jokutzen, horrek ez du esan nahi euskara alderdikieriaz erabiltzen denik. Lana hobeki eta azkarrago egin litekeela uste dugu, hori dela eta egin ditugu egin ditugun ekarpenak, baina horrek ez gaitu bihurtzen alderdikieriazale. Administrazioaren eta herri-mugimenduaren arteko dialektikaren baitan ulertu beharrekoak dira gure ekarpenak.

ELEBITASUN PASIBOA

Txostenak proposatzen dituen berrikuntzen artean kokatu beharko genuke hau, izan ere, elebitasun pasiboa helduen artean areagotu eta prestigiatu behar dela proposatzen da. Hasteko, kontzeptua erabiltzen duten erakundeen artean definizio desberdinak erabiltzen dira, ikus daitekeen moduan:

LKSk Ermuan egindako azterketa batean:

“zerbait ulertu eta mintzatzeko gai direnak”

Eustat

“Euskaldun berri pasiboa: ama hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskara ondo ulertu eta hitz egin eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

”Euskaldun zahar pasiboa: ama hizkuntza euskara izan eta euskara ondo ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

”Jatorrizko elebidun pasiboak: ama hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskara ondo ulertu eta hitz egin eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

”Partzialki erdaldundu pasiboak: ama hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz nekez hitz egin edo, hitz egiten ez badute ondo ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

”Partzialki euskaldun berri pasiboa: ama hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskara nekez edo, hitz egiten ez badute ondo ulertu eta irakurri eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.”

Euskararen Datu Basea

“euskara ondo edo nekez ulertu eta nekez hitz egiten dutenak,”

Inkesta Soziolinguistikoak elebidun hartzaileez hitz egin eta honela definitzen ditu:

“nahiz eta euskaraz ondo mintzatu ez, ondo ulertzeko gai dira.”

Ikusten denez, kontzeptuaren erabiltzaileen artean ez dago erabateko adostasunik. Eustatentzat ondo hitz egiten duten pertsonak dira, baina etxean egiterik ez dutenak. Gainerakoentzat, nekez

hitz egiten badute ere ondo ulertzen dute. Figura hori prestigiatzea da kezkatzen gaituena. Denok ditugu gertu nekez hitz egin eta ulertzen dutenak eta haien presentziak eragiten du eta, azkenean, haiekiko begirunez, geure burua behartzen dugu eta hoberen ulertzen duen hizkuntzara pasatzen gara batez ere harremanak afektiboak badira.

Elebitasun pasiboak euskarazko komunikazioa baldintzatzen du eta ezagutza maila hori prestigiatu beharrean euskara hobetzera eraman beharko genuke. Horretarako, Helduen Euskalduntze Alfa-betazeari duen izaera estrategikoa eskaini behar zaio lan-baldintzak hobetuz, doakotasunera urratsak emanez eta, oro har, neurri politiko eraginkorrak hartuz helduen motibazio pragmatikoen bitartez, euskara ikasteko beharra sor dadin.

BALIABIDEEZ

Ez da baliabideen inguruko hausnarketarik egiten. Orain arte egin diren inbertsioak egokiak izan ote diren eta aurrera begirakoak nagusiki norantz zuzendu behar diren. Alor horretan bada zer hobetu, araua eta baliabideen artean oreka bilatu behar da. Ez dago arrazoirik eskubidezkoa dena ordaintzeko eta diru-inbertsioak prozesua azkartzera bideratu beharko lirateke.

Orain arte baino gehiago inbertitu behar da, beste modu batez inbertitu behar da eta araua eta inbertsioaren artean oreka bilatu behar da, hizkuntza-eskubideak arau bitartez babestuz.

ERABILERA

Txostenak tesi nagusi bat du erabilera-tasak interpretatzeko: Gaur egungo ezagutza-tasak euskara maizago erabiltzeko aukera ematen du eta erabiltzen ez bada hitzunon utzikeriarengatik da. Joxean Artzeren esaldi famatuak erabateko gaurkotasuna eta egokitasuna duela dio.

Ez ditugu ez bata ez bestea konpartitzen. Hau da, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” adituak eredu matematikoa aplika-

tuz ezagutza-tasa bakoitzean zer erabilpen tasa espero daitekeen kalkulatzeko bidea eskaini digu. Hau aplikatuz gero, argi geratzen da erabilera-portzentaia altuak direla lortzen ditugunak. Beraz, gaur egungo ezagutza eta erabilera tasa erlazionatzen baditugu, konturatu gara nekez egin ahal izango dugula aurrera erabileran. Horretarako, ezagutzaren unibertsalizaziora pauso eraginkorrakoak eman beharko genituzke.

Bestalde, hizkuntzaren kalitatea ere garrantzi handiko elementua da. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera hizkuntza ongi ezagutzen dutenen artean erabilera nabarmen altua da eta nabarmen jaisten da euskaldun traketsen kasuan. Errealitate horrek talka egiten du elebidun pasiboen prestigiatze-nahiarekin.

Azkenik, azken Inkesta Soziolinguistikokoa, erabilera-tasa ulertzeko ematen den arrazoiaren artean, erabiltzeko aukerak txikiak izatea da funtsezkoena. Beraz, euskaldunak ez badu erabiltzen, ez da ez duelako nahi edo utzikieriaz jokatzeko duela baizik eta, azken mende laurdeneko hizkuntza-politikak ez duelako jakin, norbanakoak euskalduntzearekin batera, gizarte espazioak ere euskalduntzen. Hizkuntzak galtzen dira erabili nahi dutenek ezin dutenean. Guztiz lekuz kanpokoak iruditzen zaigu euskara galtzearen ardura euskaldunon bizkarrean kokatzea.

Gure ustez, errealitatea bestelakoa da. Badugu hizkuntzarekiko leiala den euskaldungoa, normaltasunez edo kalitatez menperatzen duenean erabiltzeko izugarritzko joera duena, baina aukera ezak euskararen erabilera eragozten diona.

Azterketa mota batekoa edo bestekoa izatea guztiz determinatzailea da hizkuntza-politikaren diseinuaren ikuspuntutik bai batetik eta bai besteak estrategia desberdinak eskatzen baititu.

DIGLOSIA

Espazio geografiko batean bi hizkuntzaren artean banaketa funtzional desorekatua gertatzen denean esaten da egoera diglosikoa dela. Hizkuntzetariko batek funtzio guztiak dituen bitartean besteak,

gutxiagotuak, funtzio bakar batzuk bakarrik beteko ditu. Errealitate hori zaila da hizkuntza gutxituarentzat eta kosta ahala kosta bilatu behar du espazio geografiko bat non funtzio guztiak betetzeko aukera izango duen, bestela bere etorkizuna arriskuan izango baita. Hori dela eta, izan badira nazio eleaniztunak, zeinetan hizkuntza bakoitzak berezko espazio naturala duen, baina ez dago espazio bakarreko nazio eleaniztunik egoera diglosikorik gabe. Kasu guztietan bata bestea jango du, denbora kontua izango da.

Txostengileek maiz aipatzen dute diglosia eta hainbat pasartetan, onartu behar dugun zerbait dela diote.

“Hizkuntzen arteko banaketa funtzionala aldez aurretik onartuta, euskarari gero eta funtzio gehiagorako bidea irekitzea...”

Egoera diglosikoan ez dago banaketa funtzionalik, hizkuntza batek funtzio guztiak, edo ia gehienak ditu eta besteak ez. Ez dago hori onartzerik, hizkuntza gutxituaren etorkizunerako funtsezkoa da funtzio guztiak eskuratzea erabateko askatasunez garatu ahal izango duen espazio geografikoan. Txostenaren arabera:

“helburutzat ere onar dezakegu diglosia atxikigarri hori...”

Diglosia ez zaigu helburu onargarria iruditzen, nahiz eta adjektibazio erakargarria ezarri.

HERRITARREN ATXIKIMENDUA

Txostenak proposatzen dituen lehentasuneko lan-ildoetan, bereziki bi dira alor honetan koka daitezkeenak. Alde batetik, euskararen erakargarritasuna lantzea eta bestetik, euskararen irudiari prestigioa ematea dira aipatzen direnak. Ados gaude biekin, baina era berean, berriro ere azpimarratu behar dugu etorkizun hurbilean herritarrak erakartzeko hizkuntza-politika egoki batek induzitutako motibazio pragmatikoez izan behar dutela nagusi. Horrek, hizkuntza-politika beste modu batez ulertzea eta praktikatzera eraman beharko gintuzke.

MERTXE MUGIKA BALANZATEGI

Itun Berritu Baterantz izeneko dokumentuak argia ikusi du urte eta erdiz eztabaidatzen egon ostean.

Eztabaida honetan parte hartzeko gonbidapena jaso nuen ez nuen uste hain interesgarria izango zenik. Eraitza honetara heltzeko, denon aldetik zerbait jarri dugu; izan ere, esparru eta ideologia desberdin askotarikoak bildu gara aipatu eztabaidan eta oinarrizko txostena adostu dugu. Zalantza izpirik gabe, ildo gehiago garatu behar dira, baina agertzen direnak beharrezkoak dira.

Txosten hau ez litzateke izan beharko, inondik inora, eztabaida baten bukaera, hurrengo legealdia Hizkuntza Politika gidatu beharko dutenentzat abiapuntua baizik. Eta hori eskatuko nioke, hain zuzen, martxoaren 1etik aurrera Hizkuntza Politikaren ardura hartzen duenari; txostenean agertzen diren lehentasunezko 14 ildoak abiapuntutzat hartu eta EBPN ebaluatzen den unean, egin behar diren proposamenak landu; helburu argiak eta ebaluagarriak jarri eta behar diren baliabideak esleitu. Orduan ere, kontsentsua bilatu beharko dugu, oinarria zein den adostu beharko dugu eta, nire ustez, euskararen ezagutza minimo bat denok bermatuta izatetik etorri behar da. Erdara ezagutu beharra denok onartuta dugu nahitaez, eta euskararen kasuan hori ez da horrela izaten.

Eta Itun Berritu Baterantz txosten honetan badago pasarte bat non zenbait apunte egin behar zaizkion; Euskalgintza publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaz mintzo da 33. eta 34. orrialdeetan. Aipamen horiek irakurri ondoren, euskalgintza ona eta ez hain ona dagoe-

la antzeman daiteke. Eta, nire ustez, ez da horrela; izan ere, denon ahaleginak dira beharrezkoak euskararen normalizazioan.

Agian, Euskalgintza termino barruan elkartzen garen guztiei ezin zaie aitortu balio bera, baina bakoitzaren funtzioak zeintzuk diren adostu egin behar dira eta gero elkarri aitortu. Bikoiztasunak ekidin behar dira, eta orain arte horretara jo duena administrazioa bera izan da. Administrazioak zein Euskalgintzak elkarren beharra dute eta gakoa jardunak ondo antolatzea, ondoren ebaluatzea eta ondorioak ateratzea izango da, ezinbestez.

Ez da onargarria izango herri-aginteeek diseinatu, baliabideez hornitu eta jarraitu beharreko hizkuntza politikaren lehentasunak arlo pribatuak finkatzea, baina bai dela onargarria eta osasungarria, eta hau gehituko nuke, arlo pribatuen aldetik hizkuntza politika kritikatzeko, horretarako beharra ikusten duenean eta baita ere zoriontzea zoriondu behar denean.

Amaitzeko, eztabaida honek jarraipena izango duelakoan nago eta aurrera begira, denok egindako ahaleginaren emaitza ikusiko dugu; ea hemendik eta 25 urtera euskararen ezagupena eta erabilera euskararen eremu guztietan bermatuta dagoela egia bihurtzen den!

TOMAS URIBEETXEBARRIA MAIZTEGI

XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak zertzeko egitasmoa batzorde-atal iraunkorrek paratutako Oinarrizko Txostenak ireki zuen, eta honekin bilakabidea burutu du batzorde-atal berak. Eta onar daiteke aurreneko txosten haren inguruko eztabaida eta iruzkinetan azaldu ziren ideiak jasotzen ahalegindu direla. Horregatik lortuko zuen batzordeko kideen onespenez orokorra. Egia esan behar bada, borondate onik ez zen falta azkenengo *Euskararen Aholku Batzordearen* osoko bilkuran, baina baginen berrogei bat kide, eta ez da erraza hainbesteren iritzia bat etortzea hain tentuz hartu behar den aferan.

Txostena irekia da eskaintzen dituen burutapenetan eta badu gogoeta berriak sortzeko indarrik ere. Datozkeen urratsen lerroak ere erdi xedatu ditu, eta lagungarri ere gerta daitezke, ez baitira lerro hetsi eta itogarriak, alderantziz baizik. Nolanahi ere, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Hitzaurrean dioenez: “komeni da argitzea txosten honek ez duela eztabaida-prozesua abiarazi zuen Oinarrizko Txostena ordeztzen –orduan esandakoak indarrean baitaude–, osatzen baizik” (12 or.). Hitz horiek, gaizki-ulerturik gerta ez dadin edo, gauzak bere tokian jartzen dituzte eta beste partaideen ekarrien garrantzia ere bai neurri on batean.

Izan ere, ez da zaila Oinarrizko Txostena deituan jasotzen ziren ideia eta burutapen kezkarrienen zantzuak hautematea azken txosten honetan. Euskararen Legeari bidenabarreko aipamen pare bat baizik ez zaizkio egiten. Lehenengoa (19 or.), estimagarria bere

laburrean, hezkuntza sistema erdi-kuestionatzeko baliatzen da berehala. Leuntzen du Oinarrizko Txostenak esaten zuena hezkuntzaz, baina hemen ere haren ikuspegi ezkorra ez ote den gailentzen esan daiteke, eta esaldi honekin amaitzen du: “Esan nahi da, oso jakina eta onartua den zerbait: hezkuntza sistema ezin dela oinarritu hizkuntza ikasteko beharretan bakarrik” (20 or.). “Jakina eta onartua” bide da, baina esan egiten da, eta ez zegoen esan beharrik, horrela jokatu izan balitz bezala euskararekin. Azken aldi honetan gure hezkuntza sistemak jasan dituen erasoen ondorio bat baino ez dirudi horrek. Gainera, gaztelerari berdin eta areago ere atxiki dakioke horrelako edozein kritika. Ez zen ezer galduko, noski, paragrafo hori saihestu izan balitz.

Txostenean “gure herria”, “herri honen hizkuntza” eta horrelakorik ez da inoiz aipatzen, Mitxelenaren zita batean izan ezik: “Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean” (30 or.). Euskararen Legeak ere Sarrerako bigarren paragrafoan hauxe dio: “Helburua zera da: Euskera, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena eta, ezagutzaren eta erabileraren bidez, gizabanakoak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzea. Euskera Euskal Herriaren berenezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial...”. Aldarrikapen horrek ez du eragotzi emaitza bikainetako hizkuntza politika, eta txosten honetan gomentatzen diren ildoek ere (50-51 or.) balukete hartan kokapen egokirik. Aipamen horiek berariaz baztertu direla agiria da, baina ez deritzat horrek akordioa erraztuko duenik, ez eta kohesioari lagunduko ere. Nik neuk utzikeria larritzat dut hori. Haien orde, “herritar” (“ciudadano” gaztelaniaz) hitzak erabat okupatu ditu beste edozein hitzen erabilera aukerak, batez ere hizkuntza eskubideez ari den aldiro.

Bada beste zerbait ere aipagarria hizkuntza eskubideez. Erabilerak bi zutabe omen ditu: bata, “hizkuntza eskubideen aitortpena eta babesa. Beste zutabea, jakina, garenaren neurriak ematen duen eskala dugu. [...] garenaren neurriak ematen digun eskalak eta hor-

tik ondorioztatzen diren mugek baldintzatu egiten gaituzte hizkuntza eskubideak gauzatzera (39 or.). Euskararen erabilera eskubideak, noski. Ondoren, muga horien zerrenda aski luzea dator, aurretik ere azaldua, eta irekia beste muga batzuetara (41 or. eta 27 ere bai). Ez dut uste on denik hainbeste tematu beharra euskararen ahultasun, muga eta alderdi ezezkorretan, batez ere hain kontu handia hartzen denean besteek ongi iritziko ez lituzketenetan.

Euskararen politizazioa ere behin eta berriz salatzen da. Aipagarria da 42. orrialdean aurreko mugen kontuaren jarraian dioena: “Eta euskararen erabileraren aldeko hizkuntza politika eragingarri baten muin-muinean, irizpide garbi bat txertatu beharra dago [...], aldez aurretik onartuta gure ezaugarri demolinguistikoak eta soziolinguistikoak definitzen duten errealitateetik abiatzen garelako errealitate hori hobetzeko hain zuzen ere, baina helburu eskuragarrien arabera hobetzeko, eta ez euskara ikur politiko soilaren tokian jartzen dutenei jarraiki bizikidetzeta eta gizarte kohesioa intrantsigentziaren labarrean amiltzeko”. Alde batera utziz ezaugarriek zedarrizten duten errealitatearena, ez da ikusten zertara datozen azken hitz gogor horiek. Testuinguru horretan ez du inolako zentzurik egiten den erkaketak, are gutxiago helburu eskuragarriak eta euskararen erabilera politikoa –“bizikidetzeta eta gizarte kohesioa intrantsigentziaren labarrean amiltzeko”– kontrajartzeak. Euskarari buruzko politikak baldintzatu eta eraso nahi dituztenek aurrena horri heltzen diote, eta zer nahiago itunerako txostenean bertan bidea zabalik aurkitzea baino. Edozein hizkuntzaz esan daitekeena izan arren, bestalde, euskarari buruz baizik ez da esaten. Eta euskara bera politikaren zerbitzura neurriren batean jarri ere (56-57 or.), edozein alderdik egin dezakeena da, eta ez litzateke itxurazko kasu konkreturik aipatzea.

Identitatearen gaia aurrekoarekin lotzen da neurriren batean. “Identitate” hitza hartua izan da azkenaldi honetan ikur bezala, eta, hitz horren inguruan, “esentzialismoa”, “integrismoa”, “entelequia” eta antzeko hitz hutsal eta faltsuak darabiltzate herri honen historia

eta herritasuna bera ukatzeko. Eta okerrena da geuk ere irentsi eta errepikatu egiten ditugula. Irakurri berri dut ergelkeria guzti horiek esku batean biltzen dituen honako esaldi hanpatu hau: “La concepción evolutiva de la identidad vasca choca frontalmente con la posición integrista de quienes se erigen en depositarios de la esencia de lo vasco, hipóstasis de un Ser Vasco en el tiempo, incluyendo en dicha esencia al euskara”¹. Txostenean ere bada horren islarik: “Inolako identitate-euskarririk onartu beharko balitzaio euskarari...” (56 or., eta hur.). Euskarari ezin zaio ukatu herri honen hizkuntza dela, eta, hori horrela izanik, herri honen ezaugarri nagusia dela, espainiera Espainiarena eta frantsesa Frantziarena diren bezala, eta ez arrazoi gutxiagoz ere.

Bestalde, txostenak maizegi jartzen ditu euskaldunak bere burua garbitu eta justifikatu beharrean, berdin da eskubideez, hizkuntzaren erabilera politikoaz, kohesioaz, irekitasunaz, intrantsigentziaz eta ia edozein portaeraz. Euskaldunak besteen antzekoak dira, baina urteak eta mendeak daramatzate irekiak izaten, hona datozenak onartzen, kohesioa bilatzen, inoren nortasuna errespetatzen, ez dakitenen aurrean euskara erabiltzeko kontu gehiegia ere izaten, eta hamaika inposaketa jasaten. Ez legoke, beraz, batere gaizki, hizkuntza politika bat diseinatzean, horiek ere kontutan hartzea, bestela ikuspegia erabat galtzen da, besteak beste.

Eta aski da, baden arren oraino puntu eztabaidagarriarik, baina ezinbestekoa da hori inork idatzitako testuetan. Nolanahi ere, begiespen orokor batez eta inolako zalantzarik gabe, agertu nahi dut txosten honen ardatza euskararen erabilera sustatzeko politika bati bideak irekitzea dela, eta hori garbi gelditzen da testuan hasie-

1 Xabier Retegi. “Prólogo” (euskaraz, ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez), “The Legal status of the basque language today: One language, three administrations, seven different geographies and a diaspora”, Gloria Totoricagüena, Iñigo Urrutia, eds., 8 or., Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2008. (Euskaraz apur bat aldatutzat jo daiteke beste hizkuntzetan esaten dena, edo alderantziz: “Euskal identitatearen ikuskera ebolutiboak talka egiten du euren burua euskalduntasunaren muinaren eta, horren barruan, euskararen zaindaritzat dutenen jarrera integristarekin”).

ratik azken hitzeraino. Horretan ez du ezer esatekorik, alderantziz baizik, prestutasuna ez ezik, interes eta borondate biziak agertzen baititu luze-zabal osoan. Adierazgarri ona da hizkuntza politikarako lehentasunezko hamalau ildoena (50-51 or.). Burutapen denak ere helburu hori aurrean izanik eginak direla garbi agertzen da beti. Eta horretan, erabilera sustatzean alegia, ez da sekula amorerik ematen. Horrek asko biguntzen du txostenari egin dakioken edozein kritika.